

GOI - YAKINTZA

Zer ote da Goi-Yakintza? Zer begiratzen du? Zer aztertzen du? Zer ikasten du? Zertarako ote da bere yardunbidea?

Lenengo galderari erantzuteko, orokorra dan mallean, guziek ao batez onela esaten digute Goi-Yakintza zer dan:

Izakien izaera, zeindasun, zio ta ondorioak aztertzen dituen yakintza.

Yakintza onen zati berezia, garrantzidunena ta bere asikera bezela izanik, Aurre-Yakintza dugu, ta bereziki lendabiziko ta orokarrak diran asierak aztertzen ditu. Beraz, ba-dirudi Goi-Yakintza'ri buruz ari-izateko, zati berezi orrezaz yardutea oso egoki ta bearra izango dala.

Jakiña, gure asmoa, orrezaz erabilliko dugun guzia, gure adimenaren mugaetan zedarriturik, euzkeraz egin nai dugu, euzkeraz oldozten, euzkeraz gogoetatzen, euzkeraz begiratzen eta euzkeraz aztertzen ari-izatea da. Ez dugu uste ori egitea erraz izango zaigula; alde batetik gure gogo-lantze guzia, naiz eta txikia izan, erderaz egin bear-izan dugulako; bestetik, gure gogolantze ortan Goi-Yakintza'ri buruz inoiz ezertxo ere ikasi ez dugulako; gañera, gai onezaz eztakigu euzkeraz ezer egiña ote dagoen, eta egon ezkerø eztugu ori ezagutzeko aukerarik izan. Alakotz, ez-ikasi ta ez-jakiña bezela ari bear-izango dugu; azketsi

bekit nire ausardia orrela ari-izateko, baña euzkerak berak lan ortan yarduteko, apika, bere bide bēzeziak emango dizkidalakoan nagoelako, bekokia dut zera ortan sartzeko.

Noski, Aurre-Yakintza Goi-Yakintza'ren aurrekoa bada, beratzaz yarduten asteak ezinbestekoa dala dirudi. Ekin dezagun bada, orrela.

Esan dugunez, Aurre-Yakintza, lendabiziko ta orokarrak diran asierak aztertzeo yakintza dugu; ta orrela izanik, bidezkoa zaigu lendabiziko asierak eta asiera orokarrak zeintzuk ote diran galdetzea.

Enurarik gabe, lendabiziko asierak ere ez dituzte guziek berdin ikusten; eta, gutxienez, berdiñak ez diran bi azpegi auek dagozela autortu bear-izango dugu: Sorkundea ta Aldakundea. Ez dugu gurean zalantzik lenengoa onartzeko ta bigarrena asiantzeko. Sorkundea'n agertzen dan lenengo agerpena BIZIA da, agiri-agirian; eta geron aldetik siñestunak geralako, BIZIA Yainkoa'k sorrerazi duela egi-egitzat dugu, guretzat egi aundiena Yainkoa ba-dala ta betikoa ba-dala autortzea dalako; ta orrengatik bakarrik, beste karirik billatu gabe, Yainkoa Bizi'aren iturburua bezela ikusten dugu.

Alaz ere, bigarren azpegia ere zertxobait begiratu bear dugu, zergatik onartzen eztugun azaltzeko bederen. Aldakundea onartzen dutenek BIZIA gaitik sortzen dala bayezten dute; ta sortze ori azaltzeko, onela gogartzen dute, batzuen batzuek beñepein: Bein, zeatzez noiz izan ote zan esan eziñean, zibizki bat (ba-dakigu zibizkia zer dan: azke bizi diteken gorputz baten zati txikiena, bera kizi batzuen bidez egiña izanik) kizkin bat biurtuta izan zala. (Kizkin bat ere zer dan ikustekoa da, ta onela diñote jakitunek: Bizi danaren oñarrizko izagaya); beraz, kizkin batean badago bizia, ta biziaren lenengo aztarna bezela begira dezakegu.

Orrela, zibizki (bizi gabeko ekaya) batetik, zikin (bizidun' era) egiña izan omen zan biziaren lenengo urratsa. Baña, nun,

noiz, nola ta zergatik eman zan urrats ori?, ain garrantziduna agertzen zaigun urratsa? Nolako ekayarena izan zan zibizki ori? Zibizki bakarra izan al zan aldatua izan zana? Zergatik ekai batean zibizki bat bakarrik (orrela izan bazan)? Zergatik ez beste ekai baten beste zibizkiren bat? Zein ekayarena izan zan aldatu-tako zibizkia? Noiz gertatu ote zan aldakera ori?, bein bakarrik? Ekai batean eta bein bakarrik ori gertatu bazan, zergatik ez ekai bertan beste zibizkiak beste ainbeste ez egin? Nola eman zan urrats aundi ura? Zergatik jazo zan ura? Zergatik ez zan berritu ekai berean edo beste batean?

Oso ospetsua dugun Teilhard de Chardin'ek bere «Giza-agerkizuna» idatzian, 369^{gn}. orrialdean onela diño: «Aspaldidani-k Gizona ez da aldakeraz igitzen, iñoiz igitu baldin bada»: «Gugan, Gizonak - ororen zentzuaren eraren batek ojindiño eusten dio - bizi-aldakundea osotzen du». Orduan, Aldakundea gizona agertu zanean amaitu al zan?, eta nolako gizon-malla izan zan ura?, eta zergatik orduan?

Amaika galderak sortzen dira, ala bearrik, urrats orri buruz. Ba al dagoz galdera oietarako erantzun egokiak?; geuk bederen eztitugu ezagutzen, eta ez dugu ikusten Aldakunde'rako argibiderik. Azkenez ortan ere siñistea al da egin bear dana? Eta siñistu bear bada, bidezkoagoa deritzaigu Sorkundea'n sinistu. Utzi dezagun, orrengatik, alboratua Aldakundea'ren asmoa, ta goazen Sorkundea begiratzin.

Alakotz, Sorkundea'n ikusten dugu BIZI'aren asiera; ta Sorkunde'aren egillea Yainkoa izan zala siñisten dugulako, Bera da, zalantzik gabe, Bizi'aren asiera, egiatzko asiera. Orra or gure oñarri sendoa.

Aztertu dezagun orain, Bizia nun, nola ta norengan edo zeñengan sortzen dan. Ludi ontan bitarikoak ditugu bertan dagozen guztiak: bizidunak eta bizigabeak; bigarrenak gauzak dira ta biziari buruz ezer ez. Ori dala-ta, bizidunengan agertzen dan bizia da begiratu bear duguna.

Kizki batean lengai batzuk ere ba-dagozela esan dizaigukete, ta egia da; arestian idoro diranak: proton, neutron eta abar, eta oietatik indar aundia irten ditekela ere; baña, ori dala-ta, auxe galde dezakegu: Indar ortan bizirik al dago?, edo: indar ori bizia al da? Ez, geron ustez, ortan indar bat baño besterik ezta; sutan, urtan, aidetan ere ba-dago indarren bat, baña bizirik ez; orobat gertatzen bide da kizkian.

Orrengatik BIZIA bizidunengan bakarrik agertzen dala bayeztu dezakegu; beraz orixe dugu aztertzeo bakarrik.

Biziaren asmo orokarra bizidun guziaz dagokien arren, bizidunengan ikusten dan bizia ez da guziengan berdin, eta aldakuntza aundia oartzen da zentzungabeetan dagoena zentzundunengan agertzen danarekin erkatzen badugu; aundiagoa oindiño bi oiek gizonagan dagoenarekin erkatu ezker.

Noski, bizidun guziok jayotzen gera, azten eta iltzen ere; ortaz guziok bat gera, berdin; baña belarkiak ez dira ibilpidedunak, abereak eta gizona bezala; alakotz lenengoak eta besteak alkarri buruz oso ezberdiñak gera ta bizia ez da, neurri osoan, berbera oroengan. Orrengatik lenengoak albora ditzakegu, besteak begiratzeko; baña abere ta gizonaren biziak ere, alkarrekiko urbillago egonarren, oiek be eztira berdin, gizona adimenduna dalako ta mintzatzen dalako. Orrela izanik, beraz, abereak ere alboan utzi ditzakegu, gizonaren bizia bakarrik aztertzeo, gizonarengan bizi osoa dagoelako, ta osoa ikusi ezker, bere zatiak be ikusita geratuko dira, ots, gizonaren bizia begiratzean beste bizidunena ere oartuta geratuko dalako.

Orrengatik, goazen gizonaren bizia arretaz aztertzeo, beregan eta bere baitan bedegarrak diran azpegiak ikustean. Arean, ba-dago gizonarengan, abereengan eta zentzundun guziengan dagoen bizi-mueta bera; jakiña, zentzundunak geran guziok ikusten, entzuten, usaintzen, gozatzen eta ikutzen dugu, bai ta konormen eta konorpenak be ba-ditugu; ots, soñari dagozkion

almenak, eta guzti oiek *gorputz-bizia* osotzen dutela oartu bear dugu. Itz batean, gorputz-bizia zentzundun guziena da, zalantzik ez ortaz.

Baña gizonak ba-du beste zentzundunak eztutena. Gizonak adimena du ta oldozmena edo gogamena ere, bai ta oarmen, oroimen, naimen, ikasmen, gogoramen, ezagumen, ulermen, burutamen, egiztamen, asmamen, arkimen, aztermena be; ta guzti oiek *gogo-bizia* osotzen dute.

Alakotz, ba-ditu gizonak *bi bizi-mueta*; bata bere gogoan, bere baitan dago, bestea gorputzean, beregan eiki; ta biak alkar-turik gizonaren bizi osoa burutzen dute. Ta bi bizi-mueta oiek alkarrenganako jokatzen dute, gogoarena nagusia izatean.

Urtubia

BEREZIARTUA ARGAZKIAK

*Argazkiak egiten dira eskontzetan Euskal Erri guztian.
Tresnak daukaguz zeuk argazkiak egin dagizuzan.*

Gure etxea zabalik daukazu era onetan:

astegunetan: 9'tik 1'ra ta 4'tik 8'ra.

jai-egunetan: 9,30'tik 12'ra.

Arana'tar Sabin Kalea
Urrutizkiña 673 0424

ZORNOTZA